# 2021eko GAZTE TALENT LEHIAKETAREN OINARRIAK

## TALDE ETA BAKARLARI GAZTEEN LEHIAKETA

### 14 eta 35 urte bitarteko gazteentzat

1.- GAIA. - Gazte Talent Jimmy Jazz Elkarteak bere zazpigarren edizioan antolatu duen talde berri eta bakarlarien lehiaketa da, Laboral Kutxaren, Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuaren eta Araba Euskarazen laguntzarekin.

2.- Parte hartzaileak. - **Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian bizi, ikasi edo lan egiten duten 14-35 urte bitarteko gazteek (deialdiaren egunean) parte hartu ahal izango dute.**

Aukeratutako eta saritutako parte-hartzaileei baldintza horren egiaztagiria eskatu ahalko zaie.

Lehiaketatik baztertuko dira deialdiaren amaiera egunean merkatuan diskogintza lanen bat edo diskoetxeren batekin kontratua duten taldeak eta bakarlariak. Ez dira baztertuko beraiek finantzatutako diskogintza lanak dauzkatenak.

3.- LEHIAKETAKO KATEGORIAK. Parte hartzeko bi kategoria egongo dira, taldeetako kideen edo bakarlarien adinaren arabera:

**Gazte Talent saria:** 14-24 urteko gazteentzat (deialdiaren egunean)

**Gazte Talent Laboral Kutxa saria**: 25-35 urteko gazteentzat (deialdiaren egunean)

Aurkeztutako agirien arabera, parte hartzeko kategoria bat esleituko zaio talde edo bakarlari bakoitzari. Baldin talderen batek bi kategorietako adineko kideak baditu, Antolakuntzak eskumena izango du egokitzat jotzen duen kategoria esleitzeko.

4.- LEHIAKETAREN FASEAK. Lehiaketak bi fase izango ditu:

a) Lanen aurkezpena eta aukeraketa: talde eta bakarlariek, izena ematerakoan, agiri

hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Taldearen ibilbidearen azalpen laburra, musika estiloa zein den ere aipatuta.

- Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.

- Taldea osatzen duten pertsona guztien NANen kopia.

- *Rider* teknikoa.

- Argazkia, *jpg* formatuan.

- Taldearen edo bakarlariaren grabazioren bat. Edozein formatu onartuko da: *mp3*, grabazioa CDan, *YouTube*-ko kanalerako esteka, *Bandcamp*-erako esteka, *SoundCloud*, eta abar.

Lehiaketarako izen ematea *online* edo zuzenean bertara joanda egin ahal izango da.

- ***Online* izen ematea:** posta elektroniko bat bidalita ***gaztetalent@gmail.com*** helbidera

- **Zuzeneko izen ematea:** agiriak Jimmy Jazz aretoaren bulegoetan aurkeztu beharko dira (Aldabe kalea 34, 1. esk., Gasteiz). Ordutegia: 10:00 – 14:00.

**Eskatutako dokumentazioa ESKATZEKO EPEA: urriaren 20tik azaroaren 16ra, biak barne.**

Antolakuntzako kideek osatutako Hautaketa Batzordeak, bidalitako material guztia entzun ondoren, hautatuko ditu bigarren fasera igaroko diren taldeak.

Batzorde horrek gutxienez hiru (gehienez lau) talde finalista aukeratuko ditu lehiaketako kategoria bakoitzeko. **Hautaketa batzordearen erabakia:** azaroaren 22an jakinaraziko zaie hamar talde finalistei, eta erakunde laguntzaileen hedabideetan zabalduko da.

b) Emanaldiak: Hamar talde finalistek hogeita hamar minutu inguruko kontzertua prestatu beharko dute eta epaimahaiaren aurrean zuzeneko emanaldia emango dute.

Horretarako, errepertorio zabala izan beharko da eskatzen den denboraz aritu ahal izateko.

Bi finalak Gasteizko Jimmy Jazz aretoan izango dira.

**Datak:**

Abenduaren 5, 6 edo/eta 7a

**Epaimahaiaren erabakia:** musikako profesionalek osatuko dute epaimahaia. Entzuleek parte-hartze kuota bat izango dute, beren botoa dela medio. Hori ehuneko bat izango da epaimahaiaren erabakian. Erabakia talde irabazleei jakinaraziko zaie eta erakunde laguntzaileen hedabideetan zabalduko da. Epaimahaiaren erabakia apelatu ezinekoa izango da.

5.- SARIAK.-

**Talde finalista guztiek 200 euroko saria jasoko dute finalean parte hartzeagatik.**

**Gazte Talent saria:** kategoria horretako irabazleak 1000 euroko diru kopurua eskuratuko du, sari gisa eta Jimmy Jazz aretoan kontzertua emateagatik (osasun egoerak uzten badu).

*Gazte Talent saria gehitu egingo zaio finalean parte hartzeagatik jasoko den 200 euroko sariari.

**Gazte Talent Laboral Kutxa saria:** kategoria horretako irabazleak 1000 euroko diru kopurua eskuratuko du, sari gisa eta Jimmy Jazz aretoan kontzertua emateagatik (osasun egoerak uzten badu).

*Laboral Kutxa Gazte Talent saria gehitu egingo zaio finalean parte hartzeagatik jasoko

den 200 euroko sariari.

**Accesita euskarazko talde edo bakarlari onenarentzat:** 500 euroko diru kopurua sari gisa eta Araba Euskaraz-en kontzertua emateagatik (osasun egoerak uzten badu). Talderik onena hautatuko da lehiaketako bi kategorien artean.

*Euskarazko talde onenaren accesita gehitu egingo zaio finalean parte hartzeagatik jasoko den 200 euroko sariari.

*Accesita eman gabe geratuko da baldin euskarazko talde onena kategoria bietako batean (Gazte Talent saria edo Laboral Kutxa Gazte Talent saria) irabazle izan bada.

**Accesita emakumeak tartean dituen talde edo bakarlari onenarentzat:** 500 euroko diru kopurua sari gisa eta Gasteizko Udalak Andra Maria Zuriaren jaietan antolatutako kontzertuetan jotzeagatik (Falerinaren Lorategian), osasun egoerak uzten badu. Talderik onena hautatuko da lehiaketako bi kategorien artean.

*Emakumeak tartean dituen talde onenaren accesita gehitu egingo zaio finalean parte hartzeagatik jasoko den 200 euroko sariari.

*Accesita eman gabe geratuko da baldin emakumeak tartean dituen talde onena kategoria bietako batean (Gazte Talent saria edo Laboral Kutxa Gazte Talent saria) irabazle izan bada.

Epaimahaiak 2021eko abenduan ezagutaraziko du bere erabakia.

Sailkatutako talde guztiek lehiaketan ematen duten kontzertuaren **kalitate handiko grabazioa** jasoko dute sari moduan.

## 6.- OHARRAK

Lehiaketari edo bere oinarriei buruzko edozein zalantza helbide elektroniko honetara bidal daiteke: **gaztetalent@gmail.com**

Bidalitako abestiek letra eta musika originalak izan beharko dituzte. Lehiaketaren Antolakuntzak ez du erantzukizunik hartzen bidalitako abestiek beste artista batzuen egile eskubideak urratzen badituzte. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, parte-hartzaileak izango dira erantzule bakarrak.

Antolakuntzak hogeita lau hilabetez eskubidea izango du lehiaketan izena emateko garaian aurkeztutako material grafikoak eta audioak zein lehiaketaren bigarren fasean hautatutako talde finalisten kontzertuetan egindako audio eta bideo grabazioak eta argazkiak erreproduzitzeko, edozein bitartekoren bidez eta Gazte Talent lehiaketa sustatzeko bakarrik. Horrek ez du eragozten talde edo bakarlariek berek haiek ere erabili ahal izaterik.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek guztiak eta Antolakuntzaren, hautaketa batzordearen eta epaimahaiaren erabakiak erabat onartzea.

Antolatzaileek ahalmena izango dute oinarrietan jaso ez den edozein gorabehera ebazteko.

# BASES GAZTE TALENT 2021

## CONCURSO DE BANDAS Y SOLISTAS NÓVELES
**Para jóvenes de 14 a 35 años**

1.- TEMA.- *Gazte Talent* es el concurso de bandas nóveles y solistas convocado en su Séptima Edición por la Asociación Jimmy Jazz, contando con la colaboración de Laboral Kutxa, Diputación Foral de Álava, Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y Araba Euskaraz.

2.- PARTICIPANTES.- **Podrán participar grupos o personas jóvenes entre 14-35 años** (a la fecha de convocatoria) **que vivan, estudien o trabajen en el Territorio Histórico de Álava y Condado de Treviño.**
A las personas participantes seleccionadas y premiadas se les podrá solicitar justificación de este requisito.
Quedarán excluidos los grupos y solistas que tengan un trabajo discográfico en el mercado o contrato con compañía discográfica a la fecha de cierre de la convocatoria. No se considerarán excluidos los trabajos discográficos autofinanciados.

3.- CATEGORÍAS DEL CONCURSO. Se establecen dos categorías de participación, en función de las edades de los componentes de cada banda o solista.

**Premio Gazte Talent**: para jóvenes de 14 - 24 años (a la fecha de convocatoria)
**Premio Laboral Kutxa Gazte Talent**: para jóvenes de 25 - 35 años (a la fecha de convocatoria)

En función de la documentación presentada se asignará una categoría de participación a cada grupo o solista. En el caso de grupos compuestos por edades de ambas categorías, la Organización se reserva el derecho de asignarles la categoría que estime adecuada

4.- FASES DEL CONCURSO. El concurso constará de dos fases:

a) **Presentación y selección de los trabajos**: los grupos y solistas interesados deberán inscribirse adjuntando la siguiente documentación:

- Breve descripción de la trayectoria del grupo, incluyendo el estilo musical.
- Teléfono y email de contacto.
- Copias del DNI de todas las personas que conforman el grupo.
- *Rider* técnico.
- Una foto en formato *jpg*.
- Alguna grabación del grupo o solista. Se aceptará cualquier formato: *mp3*, grabación en CD, enlace a canal de *YouTube*, enlace a *Bandcamp*, *SoundCloud*, etc.

La inscripción para el concurso se podrá realizar en línea o de forma presencial

- **Inscripción en línea**: mediante correo electrónico a la cuenta de correo ***gaztetalent@gmail.com***

- **Inscripción presencial**: la documentación se presentará en las oficinas de la sala Jimmy Jazz, C/ Aldabe 34, 1º Dcha, Vitoria-Gasteiz. Horario: 10:00 – 14:00 h.

**El PLAZO DE ENTREGA de la documentación requerida: entre el 20 de Octubre y el 16 de Noviembre, ambos inclusive.**

Un Comité de Selección formado por miembros de la Organización seleccionará las bandas que pasan a la segunda fase tras escuchar todos los materiales presentados.
Dicho Comité seleccionará un mínimo de tres (máximo de cuatro) bandas finalistas por cada una de las categorías del concurso.
**Fallo del Comité de Selección**: el 22 de Noviembre se comunicará a las bandas finalistas y se difundirá en los medios de las entidades colaboradoras.

b) **Actuaciones**: Las bandas finalistas deberán planificar un concierto de aproximadamente treinta minutos de duración para actuar en directo ante un Jurado, por lo que se deberá tener un repertorio suficientemente amplio para cubrir este espacio de tiempo.
Si la situación sanitaria lo permite, las dos finales tendrán lugar en la sala Jimmy Jazz de Vitoria-Gasteiz.

**Fechas:**
5, 6 y/o 7 de Diciembre

**Fallo del Jurado**: El Jurado estará integrado por profesionales del ámbito musical.
Si la situación sanitaria permite su presencia, el público dispondrá de una cuota de participación mediante su voto, que supondrá un porcentaje en el fallo del Jurado. El fallo se comunicará a las bandas ganadoras y se difundirá en los medios de las entidades colaboradoras. El fallo del Jurado será inapelable.

5.- PREMIOS.-

**Todas las bandas finalistas recibirán un Premio de 200€ por su participación en la final.**

**Premio Gazte Talent**: al vencedor de dicha categoría, con una dotación de 1000€ en concepto de premio y de remuneración por una actuación en la sala Jimmy Jazz, si la situación sanitaria lo permite.
*El Premio Gazte Talent se acumula al premio de 200€ recibido por participar en la final.

**Premio Laboral Kutxa Gazte Talent**: al vencedor de dicha categoría, con una dotación de 1000€ en concepto de premio y de remuneración por una actuación en la sala Jimmy Jazz, si la situación sanitaria lo permite.
*El Premio Laboral Kutxa Gazte Talent se acumula al premio de 200€ recibido por participar en la final.

**Accésit a la mejor banda o solista en euskara**: con una dotación de 500€ en concepto de premio y de actuación en Araba Euskaraz, si la situación sanitaria lo permite. Se elegirá a la mejor banda entre las dos categorías del concurso.
*El Accésit a la mejor banda en euskara se acumula al premio de 200€ recibido por participar en la final.
*Este Accésit quedará desierto si la mejor banda en euskara coincide con el ganador de alguna de las categorías (Premio Gazte Talent o Premio Laboral Kutxa Gazte Talent)

**Accésit a la mejor banda o solista con participación femenina**: con una dotación de 500€ en concepto de premio y de actuación en los Conciertos de Fiestas de la Virgen Blanca, organizados por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (Jardín de Falerina), si la situación sanitaria lo permite. Se elegirá a la mejor banda entre las dos categorías del concurso.
*El Accésit a la mejor banda con participación femenina se acumula al premio de 200€ recibido por participar en la final.
*Este Accésit quedará desierto si la mejor banda con participación femenina coincide con el ganador de alguna de las categorías (Premio Gazte Talent o Premio Laboral Kutxa Gazte Talent)

El Jurado dará a conocer su fallo a lo largo del mes de Diciembre de 2021.

Todos los grupos clasificados recibirán como Premio la **grabación en alta calidad** de su actuación en el concurso.

## 6.- OBSERVACIONES

Cualquier consulta sobre el concurso o sus bases puede dirigirse a la siguiente dirección de correo electrónico: **gaztetalent@gmail.com**

Las canciones enviadas deberán ser originales en letra y música. La Organización no se hace responsable de los temas enviados en el caso de que dichos temas pudieran violar los derechos de autor de terceros. Las personas inscritas serán las únicas responsables en caso de reclamación.

La Organización se reserva por un período de veinticuatro meses los derechos de reproducción por cualquier medio, y con fines exclusivos de promoción del Concurso *Gazte Talent*, de los materiales gráficos y de audio presentados en el momento de la inscripción en el concurso, así como de las fotografías y grabaciones de audio y vídeo realizadas durante los conciertos de las bandas finalistas seleccionadas en la segunda fase del concurso, sin perjuicio de que los propios grupos o solistas puedan hacer uso también de los mismos.

El hecho de participar en el concurso supone la total aceptación de las presentes bases, así como de las decisiones de la Organización, del Comité de Selección y del Jurado.

La Organización queda facultada para resolver cualquier contingencia no prevista en las bases.